

Lana aurkitu dute Arabako enplegu anezketan parte hartu duten pertsonen % 65ek

Laneratze tasarik handiena izan da hirugarren edizioan

Cristina González: "Ondo funtzionatu dute eta jarraipena izango dute aurten"

Gasteiz, 2019ko uztailaren 11a.- Lanpostu bat aurkitu du Gasteizko (2), Laudioko eta Aguraingo enplegu anezketan parte hartu duten pertsonen % 65 inguruk azken hilabetetan hainbat sektoretako enpresetan. Programaren hirugarren edizioa antolatu da aurten eta laneratze tasa orain arteko handiena izan da.

Cristina Gonzalez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko diputatuak balantze positiboa egin du Santa Maria la Real Fundazioarekin, Telefonica Fundazioarekin, Europako Gizarte Funtsarekin eta Lanbiderekin elkarlanean abian jarritako programaren bidez lortutako emaitzei buruz. Gonzalezek ziurtatu du emaitzak "oso onak" direla, eta iragarri du ekimenak laugarren edizioa izango duela udazkenean.

Gasteizko (2), Laudioko eta Aguraingo enplegu anezkak 2018ko azaroan jarri ziren martxan, langabezia handiena duten Arabako eskualdeetan enplegua sustatzeko programa berezi baten harira. Hasiera batean, 62 langabetuk hartu zuten parte anezketan koordinatzaile banaren gidaritzapean, eta xedea argia zen: nork bere gaitasunak hobetzea, lan merkatua aztertzea eta enplegua lortzea.

Orduetik, martxoaren amaierara arte, alegia, anezken ibilbidea amaitu arte, pertsona horiek prestakuntza jaso zuten, beren gaitasunei onura ateratzen ikasi zuten, beren udalerrri eta eskualdeetako enplegarritasun mapa egin zuten eta

bitartekotza lan handia egin zuten enpresekin. Horren ondorioz, pertsona horietako 40k lanpostu bat lortu dute.

Beste hiru pertsonak prestakuntza osagarria jasotzea erabaki zuten haien kualifikazioa hobetzeko edo bestelako ibilbide profesional bati ekitea. "Enplegu anezketan parte hartu zuten arabarren laneratze indizea % 65 izan da eta, ondorioz, balantzea oso positiboa da. Are gehiago esan genezake: laneratze politika aktibo gutxik dute horren laneratze tasa handia", nabarmendu du diputatuak.

Emakumeen enplegua

Cristina Gonzalezek azpimarratu du, gainera, lana lortu duten pertsona gehienak emakumeak direla, eta jarduera sektoreen arabarako informazioa ere eman du: "Laneratutako 40 pertsonetatik 27 emakumeak dira, eta emakumeak dira, hain zuzen ere, langabezia gehien pairatzen dutenak. Laneratze gehienak, 34, zehazki, zerbitzuen alorrean diharduten enpresa eta erakundeetan izan dira, eta gainerako 6rak industrian".

Enplegu anezken hirugarren programak izan duen balantze positiboa ikusita, aldundiak jarraipena emango dio ekimen horri 2019ko ekitaldian. "Ari gara dagoeneko laugarren edizioan lanean Santa Maria la Real Fundazioarekin eta gainerako entitateekin, eta datozen asteetan iragarri ahalko dugu non eta noiz abiatuko diren enplegua modu aktiboan eta lankidetzaren bidez bilatzeko talde horiek".

Arabako Foru Aldundia langabetuak prestatzeko, enplegua sustatzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko gauzatzen ari den politiken parte dira enplegu anezkak. Politika horiek gauzatzeko, aldundiak lan kualifikazio ikastaroak eskaintzen ditu, kontratu mugagabeak sustatzeko deialdia egiten du eta programa berezia antolatzen du langabezia tasa handiena duten Arabako eskualdeetan (enplegu planak eta enplegu anezkak).